



Arartekoaren 2019R-1263-17 Ebazpena, 2019ko maiatzaren 28koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, ondoriorik gabe utzi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko ebazpena, babesgabetasun egoera sortu baitu horretarako oinarri gisa balio izan duen polizia-txostenaren kopia aldez aurretik ez ematean.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa bat aurkeztu du erakunde honetan, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi diolako.

Iraungitzeko ebazpena eman aurretik, Lanbidek entzunaldi-izapide bat jakinarazi zion 2017ko otsailaren 7an. Bertan, aurreratu zuen iraungitzeko arrazoia egon zitekeela prestazioaren titularrak egindako iruzurrezko jarduketa batengatik, zehazki: *“No es posible determinar la unidad de convivencia. La unidad de convivencia declarada por la titular del expediente no se corresponde con lo declarado a la Ertzaintza (informe policial).”*

Kexaren titularrak 2017ko otsailaren 14ko idazkiaren bidez erantzun zuen, eta alegatu zuen Ertzaintzak bere etxera egindako bisitan, esan ziela bertan bera, seme adingabea eta etxean hartu zuen pertsona bizi zirela, baina azken hori ez zela bikotekidea, hori irizteko susmoak bazeuden ere.

2. 2017ko martxoaren 24ko iraungitzeko ebazpenean, arrazoi bera ematen zen: *“BIZIKIDETZA-UNITATEA EZIN DA ZEHAZTU. TITULARRAK ESANDAKOAK ETA ERTZAINZARI ESANDAKOAK EZ DATOZ BAT.”*

Horri erantzunez, kexagileak Lanbideko zuzendari nagusiarri igorritako idazki bat erregistratu zuen 2017ko apirilaren 12an; bertan, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko oinarritzat hartutako polizia-txostenaren kopia bat eskatu zuen, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 53.1 a) artikularekin bat etorritz.

Azken eskaera horren erantzunik jaso ez zuenez, 2017ko maiatzaren 2an, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen prestazioa iraungitzeko ebazpenaren aurka. Horretan azaltzen zen bizikidetza-unitatea aurreko batzuetan adierazitakoek osatzen zutela, hau da, kexagileak eta seme adingabeak.





Hala, berriro azpimarratu zuen txostenaren edukia eskuratu nahi zuela prestazioa iraungitzeko justifikazio gisa balio izan baitzuen. Errekurtso horren ebazpenak aurrekoa berretsi du.

3. Kexa hori behar bezala izapidetzeko asmoz, Arartekoak informazio-eskaera bidali zion Lanbideri eta, horren bidez, erreklamazioaren xedeari lotutako inguruabarren berri emateko eskatu zion, bereziki:

- - Lanbidek prestazioa iraungitzeko izandako arrazoi zehatzak azaltzea, baita poliziaren txostenaren irismena ere, iraungipen horri dagokionez.
- Kexagileak poliziaren txostenaren kopia bidaltzeko egindako eskaerari nola erantzun zaion.
- Halaber, poliziaren txostenaren kopia erakunde honi bidaltzeko eskatu zen.

4. Lanbidek, kontu horiei, erakunde autonomoaren zuzendari nagusiak egindako txostenaren bidez erantzun zion. Zehazki:

“DSBEren titularrak (NAN: XXX) 2015/12/16an egin zuen DSBerako eskabidea; eskabide horretan adierazten zuenez, premia larriko erregimenean bizi da eta XXX jaunak abegi egin dio; halaber, XXX jaunarekin (abegi-pertsona) batera bizi delako zinpeko deklarazioa ere egin zuen. DSBerako eskabidean, 2015/12/04an, XXX andreak (kexagilea) TRATU gisa identifikatzen du abegi-pertsonarekin duen harremana.

Bigarren hiru hilabetean, eskatzaileak hainbat elkarrizketa izan zituen orientatzailearekin, eta orientatzaileak adierazi zion semea erregistro zibilean erregistratzera derrigortuta zegoela. Horretarako, erreferentziatzeko orientatzailea gizarte-langilearekin harremanetan jarri zen, eta adingabea (XXX) 2016/01/13an jaiotze zela eta, horrenbestez, erregistratzeko legezko denbora gainditu duela kontuan hartuz, adingabea erregistratzeko kudeaketa abiaraztea erabaki zen, babesgabatasunaren pean eror ez zedin, adingabearen eskubideei jarraikiz.

Zegozkion probak egin ondoren, 2016/08/02an XXX andreak (kexagilea) bere semearen (xxx) jaiotza-ziurtagiria (erregistro zibilekoa) aurkeztu zuen Lanbidek Ondarroan duen bulegoan (adingabea 2016/07/12an erregistratu zen erregistro zibilean). Adingabearen aita (XXX) jauna da.

2017/02/05eko polizia-txostenean, XXX jauna (abegi-pertsona) XXX (kexagilea) andreaken mutil-lagun gisa dago identifikatuta. Honen berri





ematen da: 'patruila bat XXXko etxebizitzara joan zen, XXX andrea (kexagilea) bertan bizi ote zen jakiteko; hala, 2016ko otsailaren 1ean, 11:16an, patruila horrek baieztatu eta jakinarazi zuen XXX andrea (kexagilea) etxebizitza horretan bizi zela bere mutil-lagun XXX jaunarekin (abegi-pertsona); une horretan, XXX jauna (abegi-pertsona) ez zegoen bertan.'
Horretaz gainera, bizikidetza-unitate horretatik kanpoko pertsona batek txosten horretan adierazi zuen adingabearen aitaren etxean (aitaren etxea beste herri batean dago) ere bizi direla, batzuetan, XXX (kexagilea) eta haren semea.

(...)

DSBEren titular XXX andreak (kexagilea) ez-betetze ugari egin dituenaz, DSBE hori ukatzea erabaki da."

5-. Lanbidek erakunde honetara bidalitako idazkian kexagileari eman zitzaion erantzunaren kopia bat jasotzen zuen, hark kopia hori eskatu ondoren:

*"En relación a la petición de la información solicitada por xxxx (reclamante) con DNI: xxxxxxxx con fechas 12 de abril 2017 y 02/05/2017 así como la petición de información del 27 de abril 2017 donde solicita el informe policial queremos hacerle saber que **no le podemos aportar** tal informe debido a que:*

"las administraciones vascas garantizarán la confidencialidad de los datos obtenidos en los términos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal."

Sin perjuicio de lo anterior, deberá entenderse que existe un deber general de colaboración de las administraciones públicas entre sí para la mejor atención de la ciudadanía y que, en su marco, existen cauces de comunicación que permiten un sistema de información ágil, actualizado, y que permiten, previa conformidad de la persona atendida y mediante la aplicación de todos los dispositivos de seguridad compartir determinados tipos de información entre las diferentes administraciones públicas."

6. Lanbidek polizia-txostenaren kopia bat igorri dio Arartekoari, eta haren edukia ondoren aipatuko da, datu pertsonalen tratamendu egokia egin eta gero:

"Por medio del presente y con relación a la revisión de los expedientes S.S.C.C. (2016/RGI/017850 y 2016/RGI/001198), de LANBIDE, se informa que, presentada una patrulla en el domicilio C/Z xxxxxxxx -xxx xxx, a efectos de comprobar si en la misma reside D./Dña xxxxx xxx (reclamante),



el día 01 de febrero de 2016, a las 11,16 horas, resulta que, se confirma que dicha persona reside en dicho domicilio e informando la misma que convive con su novio D./Dña xxxxx xxxxxx (acogedor), el cual no se halla en ese momento en el lugar.

Con relación a la comprobación del domicilio de residencia de D./Dña xxxxxx xxxxxx (padre del menor) en la C/ xxxxxxxx de xxxxxxxx, se informa que presentada una patrulla en dicho domicilio el día 1 de febrero de 2016, a las 11,32 horas, han procedido a llamar al portero del piso varias veces no siendo atendidos. Puestos en contacto con la vecina residente en el piso (xxxxxxxxxx) doña (xxxxxxxxxx), esta les indica que xxxxx (padre del menor) no reside habitualmente en ese domicilio, y que la última vez que le ha visto fue hace un mes o dos meses, también refiere que xxxxxx (padre del menor) y otra persona que identifica con el nombre de xxxx (reclamante) y los cuales tienen un hijo en común, aparecen en dicho domicilio de vez en cuando."

Txostenaren edukia ez dator bat kexagileak egindako baieztapenarekin; hark zioen bizikidetzaren unitatea berak eta seme adingabeak osatzen zutela, etxean hartu zuen pertsona ez zela bikotekidea, eta semearen aitarekin ez zuela ezkontza-harremanik edo antzekorik.

7. Erakunde honek egokitzat jo zuen informazio gehiago eskatzea prestazioen titularrari oraindik polizia-txostena ez emateko zer arrazoi zeuden jakiteko, Lanbideri helarazi zitzaizkion arauditik sortutako betebeharrak kontuan hartuz. Frogaldi bat irekitzeko aukera baloratzeko eskatu zen ere, bizikidetzaren unitatea nori osatzen zuten egiaztatze aldera.

8. Horri erantzunez, Lanbidek informazio hau igorri du:

"a) Ez da UC zehazten, DSBE izapidetzeko nahitaezko baldintza bada ere. 147/2010 Dekretuaren 5 artikulua.

b) Poliziaren txostenak ezartzen du DSBE prestazioaren titularra bi etxetan bizi dela, eta ez dagoela argi ugazabekin zer harreman duen.

c) DSBEa eskatzen den unetik gelditu behar da argi zein den BUaren osaketa.

*d) Poliziaren txostena ez genuen eman; izan ere, iazko informazio-eskaerari erantzun genionean adierazi genuen bezala, **hirugarren pertsonen datuak ematen ditu** (datuen babesa, txostenean beste pertsona bati buruzko datuak ageri dira).*



e) Garrantzitsua da aintzat hartzea Ondarroako Lanbidek iazko informazio-eskaerarekin batera emandako informazioa, bai eta aipatzen ditugun laguntzen nolatasuna ere (18/2008 Legea eta 147/2010 Dekretua).

f) Lan-orientatzailearen txostena eransten dugu."

Hortaz, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

Gogoetak

1. Aurreko egitateen zerrendan aurreratu den moduan, kexa-espeditate honetan eztabaidatu beharreko gaia 2017ko martxoaren 24ko ebazpenaren bidez erabakitako iraungitzea da, iruzurrezko jardun batek eragindakoa, polizia-txostenaren edukian oinarrituz bizikidetz-unitatea nork osatzen zuten ezin baita zehaztu.

Erakunde honetara igorritako Lanbideren bigarren txostenak zioenez, enplegu erakunde autonomoak uste du bizikidetz-unitatea nork osatzen duten ezin zehaztu ahal izateak diru-sarrerak bermatzeko errenta izapidetzeko ezinbesteko betekizun bat bete gabe uzten duela, honi lotuta, hain zuzen: ezin dela zehaztu kexagilearen bizikidetz-unitatea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari Buruzko Dekretuak (maiatzaren 25eko 147/2010) 5. artikulua zein xedapenetan sartzen den.

Ildo horretan, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arrazoiaren azalpenak bizikidetz-unitatea erdiguneko elementutzat jotzen du diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidearen osieran. Hasieratik bertatik, bizikidetz-unitatearen zehaztapena hau dela esaten du: *"...ereduaren oinarritzko osagaietako bat da, horren definizioa erabakigarria baita prestazio bakoitzak eskainiko duen babes-mailarekin"*. Horrekin bat etorritik, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.4. artikulua honako hau ezartzen du: *"Lege honen ondorioetarako, artikulua honetan aipatzen diren bizikidetz egiazkoa edo bizikidetz-eza **aztergai izan beharko ditu administrazio eskudunak, kasuaren arabera beharrezkoa denean**"*.

Osaera hori zalantzan jartzeko zantzuren bat dagoenean, Lanbidek normalean Segurtasun Sailari **bizikidetz egiaztatzeko polizia-txostena** egiteko eskatu izan dio. Txosten eskaerak urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), 79. artikuluan ezarrita daude.





Polizia-txostenaren edukia aztertuta egiaztatu ahal izan denez, prestazioen titularraren testigantza jasotzen da bertan, eta aipatu du une horretan bikotekidea zenarekin bizi zela esan zuela.

Txosten hori baloratu behar da urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), 77.5 artikuluko horretan agindutakoaren arabera eta espedientean ageri diren gainerako dokumentu nahiz frogekin haztatu. Lege horren 77.5 artikulutik ondorioztatzen denez, *“agintari izaera onartzen zaien funtzionarioek, legezko betebeharrekin bat, egiaztatutako egitateak jasotzeko egiten dituzten agiriak egitateen frogatzat hartuko dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada”*.

2. Kexagileak, txostenaren edukia helarazi zaionean, bere bertsioari eutsi dio, eta bizikidetzaren unitatea berak eta semeak bakarrik osatzen dutela aipatu du.

lido horretan, erakunde honek beste zenbaitetan kontu honi buruz helarazitako gogoetak errepikatu ditu: hemen hizpide dugunaren antzeko kasuetan, polizia-txosten bati eman behar zaion balioa. *Hala egin zen honako agiri honetan: Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017, “bizikidetzaren unitatearen osaera egiaztatzeari” buruzko 5.1.3. apartatuan, zehazki, polizia-txostenei eta ezkontzakoaren antzeko harremani buruzkoan (49. orrialdea eta ondorengoak); bertan adierazi zen, jurisprudentziaren doktrinarekin bat etorriz, dokumentuan jasotzen den egitate, ekintza nahiz egoerari, baita jasotzen den datari eta horretan parte hartzen duten pertsonen nortasunari erabateko froga-balioa ematen bazaie ere, ez dagoela tokirik interpretazio, balio-judizio edo iritzietarako.*

Txosten horretan jurisprudentzia zabala aipatzen zen, eta horrek zalantzan jartzen zuen txosten horiek *per se* duten froga-balioaren nahikotasuna. Beraz, kontrako beste froga batzuk aurkezteko aukera legoke. Ez dirudi orain egokia denik han adierazitako jurisprudentzia guztia hemen errepikatzea; alabaina, adierazi nahi dut, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1. sekzioko abenduaren 28ko 991/2012 Epaiak (Justizia Auzitegi Nagusiarena) honako hau ondorioztatzen zuela, beste alderdi batzuen artean: polizia-txostena *“hizpide dugun egitatearen zantzen bidezko froga baino ez dela”*.





Arartekoaren aburuz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edota etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular baten bizikidetzaren unitatearen osaerari buruzko frogak, izaera sozialeko prestazio ekonomikoak izateagatik garrantzia berezia dutela-eta, egiaztatzeko jardunek babestu beharko lukete, eta haren edukia kasu zehatz bakoitzean emandako prozeduran zehatz-mehatz agertuko zen. Oraingoan, jardun duten agenteek zuzenean egiaztatutako egitateak eta datuak adierazi beharko lituzke, eta aurrerago egingo den moduan, **kontraesanaren printzipioa bermatu beharko luke polizia-agingpidearen eta prestazio horien erabiltzaileen bertsioaren artean.**

Arartekoak, erabaki judizial horiekin bat etorriz, honako gomendio hau eman zuen, 2017ko Diagnostiko -txostenean (22. gomendioa): "Bizikidetzaren unitatearen osaera egiaztatzeko baliagarriak diren txostenen edukiaren **proporziozko judizioa** egitea; egitateei balioa ematea eta kasu bakoitzean barne hartutako interpretazio, balio-judizio eta iritzien balioa haztatzea."

Proposamen horri eutsiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren uztailaren 8ko 418/2013 Epaia aipatu zen (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. sekzioa); horren bidez, auzitegiak honako hau ondorioztatu zuen: *"la consecuencia es que si, en ocasiones, esas informaciones policiales pueden constituir instrumentos útiles para fundar una investigación más contrastada, (propia de las actuaciones cautelares), no pueden erigirse en soporte exclusivo de una medida definitiva de denegación (o extinción del derecho) si a esa falta de precisión se une el potencial indiciario de signo contrario que cabe asimismo atribuir a la concurrencia de actuaciones, incluso públicas, que atestiguarían la ruptura convivencial (...)"*.

Finean, aipatu behar da erakunde honek behin eta berriz helarazi duela komenigarria dela, oro har, **kontraesanaren printzipioa zabaltzea. Hala, pertsona ukituari entzungo zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko, eteteko edo iraungitzeko erabakia hartu baino lehen;** horrenbestez, administrazioaren erabakiaren aurka egin ahalko da hizpide dugun polizia-txostenaren edukiaren berri izanda eta defentsarako egokiak iruditzen zaizkion frogabideak proposatu edo erantsi ahalko ditu.

Espediente honetan, Lanbidek aurretiazko entzunaldi izapidea eskatu zuen iraungitzeko erabakia hartu aurretik, baina polizia-txostenaren kopiarik ez zuen eman; beraz, horrek esan nahi du izapide horrek funtsezko edukirik ez zuela.





3. Arartekoaren ustez, funtsezkoa da kexagileak polizia-txostenaren edukia aldeztu aurretik jakitea; izan ere, bere interesei eragiten dien erabakien oinarri da (prestazio ekonomikoak ukatzea, etetea edo iraungitzea, esaterako). Premisa hori, aztertzen ari garen kasuan, ez du bermatu administrazioak, ez baita aurkeztu aurretiazko entzunaldi izapidean eta kexagileak egindako eskaera ukatu da; horren bidez, polizia-txostenaren kopia bat eskatzen zuen berariaz.

Interesdunari polizia-txostenaren edukiaren berri emateko eskaerari erantzunez, Lanbideek honako hau interpretatu du: diru-sarrerak bermatzeko errentaren edota etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrek eskatuta txosten horren kopia osorik helarazteak euskal administrazioek bermatu behar dituzten betebeharrak nahiz konfidentziasuna urratzen dituela aurrez indarrean zegoen lege honetan ezarritako baldintzetan: *15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa.*"

Erakunde hau ez dator bat iritzi horrekin hainbat arrazoiengatik.

4. Lehenik eta behin, azpimarratu behar da 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 35. artikulua eskatzen duela eskubideak mugatzen dituen ebazpenen arrazoiak jaso dezala administrazioak hartutako erabakia zehazten duten zuzenbide egitateen nahiz oinarrien azalpen labur bat.

Kexa hau eragin duen jardun zehatzean, kexagilearen iraungitzeko ebazpenak jasotzen du iraungitzearen arrazoiak, iruzurrezko jardun bati lotzen baitio eta bizikidetzaren unitatea ezin zehazteari; izan ere, Ertzaintzari adierazitakoarekin ez dator bat. Ondoren, nolana ere, soilik dio "(polizia-txostena)", haren edukiari buruzko azalpen gehiagorik eman gabe.

lido horretan, gogora ekarri behar dugu 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 88.6 artikuluan honako hau adierazten dela: *"Txosten edo irizpenak onartzeak ebazpena arrazoitzeko balioko du haren testuari gehitzen zaizkionean."*

Gai honetan, bizikidetzaren unitatearen osakerari dagokionez interesdunak esandakoarekin bat ez datorren **polizia-txosten bat egotearen arrazoiak babesgabetasun egoera ekar lezake Arartekoaren ustez, kontraesanaren prozedura bat ezin duelako abiarazi informazio osoa esku artean izanik. Are gehiago, gogora**





ekarri behar dugu kexagileak polizia-txostenaren kopia bat emateko berariaz eskatu zuela, idatziz.

"In aliunde" delako arrazoia, hau da, txosten edo irizpen baten datara edo egilearengana jotzea (jardueraren testuan edukiaren gutxieneko laburpen bat jaso gabe), administrazioaren jardunbide bat da, eta administrazio prozedura jakin batzuetan onartzen da. Nolanahi ere, Arartekoaren ustez, eskubide subjektibo bat iraungitzeko ebazpena izatean, pertsonen premia oinarritzkoenak betetzeko prestazio batena zehazki, jardunbide hori ez da nahikoa eta babesgabetasun egoera nabarmena dakar.

Legian arrazoiaren azalpen laburra aipatzeak ez du esan nahi hura pertsona ukituentzako berme handirik gabe egin ahalko denik. Aldiz, arrazoiak ulergarri egin behar du administrazioak erabaki bat edo bestea hartzeko egindako prozesu logikoa eta juridikoa, eta edozein kasutarako onargarriak diren formulak ez dira nahikoak. Konstituzio Auzitegiaren epaiak adierazten duen moduan (KAren 112/1996 Epaia, ekainaren 24koa), *«a través de la motivación el juzgador hace público el proceso intelectual de la ley»*, eta administrazio prozedura baten kasu zehatzean, jardueraren arrazoiak hartzaileentzako nahikoa izan behar du.

Horregatik, zenbait kasutan bereziki, arrazoiak lehendik dagoen arau-agindu edo txosten bati egiten zaion erreferentzia baino zabalagoa izan behar du. Konstituzio Auzitegiaren epaiak jasotzen duen moduan (KAren 146/1995 Epaia, urriaren 16koa), *"la motivación ha de ser suficiente, y este concepto jurídico indeterminado nos lleva de la mano a cada caso concreto, en función de la importancia intrínseca y de las cuestiones que plantee"*.

5. Bestalde, gogoan izan behar dugu hizpide dugun kasuan, kexagileak bere espediente eskuratzeko eskaera egin zuela berariaz, polizia-txostena, hain zuzen.

Erakunde honek Lanbideren antzeko jardunak aztertzen dituen beste kexa-espediente batzuetan gertatzen den moduan, **txostena egiteko eskaera ukatu da haiek beste batzuen datu pertsonalak dituztelako**. Arartekoaren aburuz, informazioa eskuratzeko aukera ukatzea ez dator bat Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak ezarritako administrazio-prozeduran interesdunen berme nahiz eskubideei zor zaien errespetuarekin; izan ere, eskubide horiek mugatzen ditu ordenamendu juridikoak bilatzen duenaz harago, hau da, konprometitutako balizko eskubideak eta interesak bateratzea.





Eskubide subjektibo baten titularrak izateko betekizunak bete ez direla egiaztatzen duten egitateen lekuko gisa esku hartutako beste pertsona batzuen datuak egotea, dagokion defentsa antolatzeko beharrezko informazioa da. Beste kasu batean, aginpidea duen funtzionario batek txostenean bizilagunen testigantza jaso dezake, eta informazio hori ez da oinarrituko jarduten duten agenteek zuzenean egiaztatutako egitate eta datuetan, baizik eta aginpiderik ez duten pertsonen informazioei erantzuten die.

Azterketa honen xede den polizia-txostenean bizilagun baten testigantza jasotzen da kexagilearen "ustezko" testigantza babesteko, baina hark hori egin izana ukatzen du. Nor den ez dakigun bizilagun baten testigantzak, kexagilearen balizko adierazpenarekin batera, polizia-txostenaren edukia osatzen dute. Bizilaguna nor den ez dakigunez, ezin da ageriko ezinikusirik alegatu, edo egia dela zalantzan jartzeko beste edozein inguruabarrik.

Azpimarratu da, aginpide publikoa duen funtzionario batek egindako polizia-txostena haiek egiaztatutako egitateak frogatzen dituela (39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 77.5 artikulua); beraz, beste batzuen iritziek froga-baliorik ez dute, ez behintzat balio berezirik. Polizia-txosten batek eskubide subjektibo bat iraungitzeko balio duenean, haren edukia helarazi beharko zen datu garrantzitsu guztien berri emanez, beste batzuen testigantza, esate baterako. Beste zenbaitetan, eskubide horren iraungitzea ezingo zen justifikatu txosten horretan oinarrituz.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoak, bakarka aintzat hartuta ere, ez luke babestuko txostenaren edukia interesdunari ez helarazteko erabakia. Araudi horrek zenbait kautela ezartzen ditu datuak tratatzeko orduan, bete ahalko zirenak, eta ez da zuzena izango haren aurreikuspenak oro har alegatzea.

Ildo horretan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 5. artikuluan (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan (tratamenduari lotutako printzipioei dagokienez 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena), honako hau ezartzen da:

1. Los datos personales serán:

a) tratados de manera lícita, leal y transparente en relación con el interesado («licitud, lealtad y transparencia»);





b) recogidos con fines determinados, explícitos y legítimos, y no serán tratados ulteriormente de manera incompatible con dichos fines; de acuerdo con el artículo 89, apartado 1, el tratamiento ulterior de los datos personales con fines de archivo en interés público, fines de investigación científica e histórica o fines estadísticos no se considerará incompatible con los fines iniciales («limitación de la finalidad»);

c) adecuados, pertinentes y limitados a lo necesario en relación con los fines para los que son tratados («minimización de datos»);

d) exactos y, si fuera necesario, actualizados; se adoptarán todas las medidas razonables para que se supriman o rectifiquen sin dilación los datos personales que sean inexactos con respecto a los fines para los que se tratan («exactitud»);

e) mantenidos de forma que se permita la identificación de los interesados durante no más tiempo del necesario para los fines del tratamiento de los datos personales; los datos personales podrán conservarse durante períodos más largos siempre que se traten exclusivamente con fines de archivo en interés público, fines de investigación científica o histórica o fines estadísticos, de conformidad con el artículo 89, apartado 1, sin perjuicio de la aplicación de las medidas técnicas y organizativas apropiadas que impone el presente Reglamento a fin de proteger los derechos y libertades del interesado («limitación del plazo de conservación»);

f) tratados de tal manera que se garantice una seguridad adecuada de los datos personales, incluida la protección contra el tratamiento no autorizado o ilícito y contra su pérdida, destrucción o daño accidental, mediante la aplicación de medidas técnicas u organizativas apropiadas («integridad y confidencialidad»).

Halaber, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan (abenduaren 13ko 15/1999) II. tituluan (*Datuak babesteko printzipioen* gainekoa), zenbait printzipio, muga eta kautela ere ezartzen dira datuak tratatzeko orduan. Hala, 4.1. artikulua honako hau agintzen du: *"Los datos de carácter personal sólo se podrán recoger para su tratamiento, así como someterlos a dicho tratamiento, cuando sean adecuados, pertinentes y no excesivos en relación con el ámbito y las finalidades determinadas, explícitas y legítimas para las que se hayan obtenido"*.

Arartekoaren aburuz, eskatutako polizia-txostenean izaera pertsonaleko daturen bat ustez egoteak ez du justifikatzen hura eskuratzeko eskaera ukatzea; **hala badagokio, tartean dauden interesak haztatzea ekar lezake, zer informazio eman**





daitekeen erabakitzeko asmoz eta zer datu pertsonal babestu edo gorde behar diren, halakorik balego.

6. Horri guztiari gaineratu behar zaio, 39/2015 Legearen 13. artikulua, pertsonen herri-administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideei buruzkoak, adierazten duela, administrazioan jarduteko gaitasuna dutenek, besteak beste, eskubide hau dutela: ***“Informazio publikoa, erregistroak eta artxiboak eskuratzeko eskubidea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoaren arabera.”***

lido horretan, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) 13. artikulua ezartzen duenez: *“Se entiende por información pública los contenidos o documentos, cualquiera que sea su formato o soporte, que obren en poder de alguno de los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título y que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones”.*

Gainera, 14.1 artikuluan eskuratzeko eskubidearen mugak arautzen dira informazioa jasotzeak honako honi kaltea eragiten dionean:

- a) La seguridad nacional. b) La defensa. c) Las relaciones exteriores. d) La seguridad pública. e) La prevención, investigación y sanción de los ilícitos penales, administrativos o disciplinarios. f) La igualdad de las partes en los procesos judiciales y la tutela judicial efectiva. g) Las funciones administrativas de vigilancia, inspección y control. h) Los intereses económicos y comerciales. i) La política económica y monetaria. j) El secreto profesional y la propiedad intelectual e industrial. k) La garantía de la confidencialidad o el secreto requerido en procesos de toma de decisión. l) La protección del medio ambiente.

Espediente honetan, Arartekoaren ustez, txostena eskuratzeko aukera ez dute mugatzen 1. apartatuan ezarritako arrazoiek, ordenamendu juridikoak babestutako interesa dago tartean, defentsarako eskubidea, hain zuzen (24. artikulua EE); beraz eskuratzeko aukera ukatzea interes eta eskubideen haztapen batean arrazoituta egon beharko litzateke.

Lege agindu beraren 2. apartatuan **xedatzen da muga horien aplikazioa babesteko duen helburuaren arabera justifikatuta eta proportzionatua izango dela eta kasu**





zehatzaren inguruabarrei erreparatuko diela, bereziki, eskuratzeko aukera justifikatuko duen interes publiko edo pribatu handiago bati.

Lege beraren 15.3 artikuluan, datu pertsonalak babesteari buruzkoan, honako hau agintzen da: eskatutako informazioak bereziki babestuta ez dauden datuak jasoko ez balitu, eskaera jasoko duen organoak eskuratzeko aukera emango du ukituen informazioa eta eskubideak (informazioan agertuko diren datuak) zabaltzeko interes publikoa aurrez aski arrazoituta haztatu ondoren, izaera pertsonaleko datuak babesteko duten oinarritzko eskubidea, bereziki.

Halaber, 15.4 artikuluan agintzen denez, **aurreko apartatuetan ezarritakoa ez da aplikatuko, baldin eta eskuratzeko aukera izaera pertsonaleko datuak bereiziz egiten bada; hala, pertsona ukituak ezingo dira identifikatu.**

Aukera horrek ezingo lioke eskubide bat iraungitzeko edo ukatzeko ebazpen bati eutsi beste baten datuak babesteko eskubidean oinarrituz.

7. Erakunde honek, berriki, beste kexa-espeditente baten testuinguruan **(130/2019/QC erreferentzia-zenbakia)** jakin duenez, Lanbidek polizia-txosten osoaren kopia bat eman du, kexagileak hala eskatuta. Espediente honetan bezala, polizia-txosten bat zen, honi buruzkoa: prestazioen titularra erroldatuta zegoen etxebizitzan benetan bizi zela egiaztatzea. Espediente horretan, kexagileak aurkeztutako dokumentazioaren artean, Lanbideren bulegoan eman zioten polizia-txostenaren kopia bat ageri da, eta **garrantzitsua da azpimarratzea txostenean beste pertsona baten datuak ez daudela jasota**; azken horrek bere testigantza eman zien benetako bizilekuari lotutako betekizuna betetzen zen ikuskatzeko agindua zuten poliziei.

Horren ondorioz, egiaztatu da enplegu erakunde autonomoak beste kexa-espeditente batzuetan baliatutako irizpidea ez dela izan hizpide dugun kexan erabili duena.

8. Beraz, orain arte azaldutako guztia aintzat hartuta, Arartekoak adierazi du, 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 88.6 artikulua agindua betetzeko asmoz, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko, eteteko edo iraungitzeko Lanbidek hartutako erabakiarekin batera, bizikidetza egiaztatzeko polizia-txosten baten kopia aurkeztu behar dela; izan ere, **igortze hutsagatiko arrazoia ez da nahikoa inklusio ekonomikoko eta gizarteratzeko premia oinarritzkoenak betetzeko**





prestazio bati lotutako administrazio-prozedura batean.. Arrazoi erreferentzial bat ez zen nahikoa izango administrazio egintza 39/2015 Legearen 35.1.a) artikuluan adierazitakoren bat denean, hau da, eskubide subjektiboak mugatzen dituztenak.

lido horretan, **txostena eskuratzeko aukera ukatzeak 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 13.d) artikulua aurka joko luke;** artikulua honek pertsonen eskubideak arautzen ditu herri-administrazioekin dituzten harremanetan, eta haien artean informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea ezartzen du, hauekin bat etorritik: abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan, ezarritakoarekin eta ordenamendu juridikoaren erronkarekin.

Horrenbestez, aurretiazko entzunaldi izapidean, are gehiago interesdunak txostenaren kopia eskatzen duenean, espediente honetan gertatu den moduan, irizten da 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 13.d) artikulua horretan aitortutako eskubideak bere espedientean dauden txosten guztien edukia jakiteko eskubidea jasotzen duela, eta bere prozedurari dagokionez administrazioak hartutako erabakiak oinarritzeko balio dezaketela; horren barnean sartzen da, jakina, polizia-txostenaren kopia bat. Txosten horretan ez badira agertzen erabakiari eusteko edo txostena eskuratzeko aukera ukatzeko testigantza egin duen pertsonaren datuak (tartean dauden interesak behar bezala haztatu diren ebazpen arrazoitu baten bidez), iraungitzeko erabakia ez zen polizia-txostenaren edukian oinarrituko.

Babesgabatasun egoera eragin duten akats formalei erantsi behar zaie erakunde honetara igorritako polizia-txostenaren edukia aztertzeak sortzen dituen zentzuzko zalantzak; zuzenbidearen arabera erabateko frogabalioa ematea eragozten dute.

Horregatik guztiatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak honako gomendio hau egin dio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:



GOMENDIOA

Diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko ebazpena ondoriorik gabe uzteko gomendatzen du Arartekoak, horretarako oinarri izan den polizia-txostena aldez aurretik ez emateagatik eta, beraz, kexagileak bere burua defendatzeko duen eskubidea ez bermatzeagatik.

Halaber, oro har, bizikidetzaren unitatearen osakerari buruzko polizia-txostenaren kopia igortzea gomendatzen da, eta hura eskuratzeko aukera ukatzen bada, horretarako zer arrazoi dauden azal daitezela baina, kasu honetan, txostenaren edukiak iraungitzeko erabakia babesteko ez du balioko.

